


Baleike

Zumaiaiko herri aldizkaria. 31. zenb. 1997ko urtarrila. 200 pzt.

200 pta

20 orrialdeko 1996ko URTEKARIA barruan



Elkarrizketa

**Joakin
Zubeldiakin
Mont Blanc,
Kilimanjaro eta
Akonkaguara**



Ziklo-krosean bikain

FOTOTEKAK utzitako argazkia



BI IBAI

Laino ilunak San Lorente eta Izarraitz aldean. Lehen ere, orain bezala, izaten ziren ekaitza latzak; baina lehen, orain ez bezala, Narrondo ibaiko horma ez zen hain sendoa eta uholdeak nahi baino sarriago etortzen ziren. Argazkian ikus ditzakezue, bi ibai, elkarren ondoan, zorionez gehiago errepikatuko ez den irudi bat eginez.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Aldizkari honek Eusko
Jaurlaritzako Kultura Sailaren
dirulaguntza jaso du



ZUMAIKOU DALAK
lagundutako aldizkaria



Zumaiako Udala
FORONDA KULTUR ETXEA



kutxa fundazioa
fundación

BALEIKE
HERRI ALDIZKARIA
 Foronda kultur etxea
 tfnoa: 86 10 56
 faxa: 861742
 argitaratzailea
ZUMAIAKO
GAZTE
BATZORDEA

Iantalde

Iratxe Aizpurua
 Esther Martinez
 Eneko Dorronsoro
 Xabier Azkue
 Igor Uranga
 Josu Waliño
 Gorka Zabaleta
 Juan Luis Romatet

Kolaboratzaileak

GEG, Natur Taldea, Argazki
 Elkarte, Joxe Etxabe, Eulali,
 Miriam Romatet, Ainara
 eta konpainia, Dani Carballo,
 Javier Carballo, Amaia Benito,
 Jon Manzisor, Karmelo
 Arroiabe, Josu eta Arantxa,
 Asier eta Fran, Javier Carballo,
 Ainhoa Iturbe, Mattin, e.a.

publizitatea
 861056 tlf.

inprimategia

Gertu Koop. E.
 (Zubillaga-Oñati)

tirada: 900 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

BALEIKEk ez du bere
 gain hartzen aldizkarian
 adierazitako
 esanen eta iritzien
 erantzukizunik.

Erreportaia
Jose Luis
Nuñez,
herriko
farozaia
 ...12 or.



Izerdi patsetan
Gabonetako
txapelketa
arrakastatsua
26. or.



Ze berri?
Gabonen
ondoren
badator
ilbeltza
 9 or.

Urte zahar off

Bai, urte zaharra itzali da. Konturatzeko iraganaren zakuan sartu dugu 96a ere, urtero urte zaharrarekin egin ohi dugun moduan. Izan ere, urte batekin ohitzen garenerako, ala, basuretara! Urteak urtero aldatzearen mania hori ez zait gustatzen. Bi edo hiru urtetik behin aldatu beharko genituzke urteak. Hala, aparteko laguntasunak eta konfiantzak egingo genituzke urte bakoitzarekin. Edo bestela, eta usarioei jarraituz, urtero aldatu, baina urte zaharrak zakura bota beharrean birziklatzera eramanez. Gero krisia dagoela esango dugu!

Ez, ez. Ez da broma. Nola daiteke dirua horrela alferrik botatzea? Ez al du ba berdin balio bigarren eskuko urte batek? Seguru igerri ere ez zenioketela egingo. Edo gutxien-gutxienik bista pixka bat izan dezagun! Urte berria urtarrilaren 1ean hartu beharrean otsailaren erdialdean har dezagun, %75eko beherapenetan egoten baitira.

Honi guztiari zuen buruetan bueltak ematen dizkiozuen bitartean, zerbait egin beharko eta, urte zaharra off-ean jarri denez,
URTE BERRI ON.



Eneko
Dorronsoro



PREMIAZKO
TELEFONOAK:


Kultur Etxea	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epaitegia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 21 72
Pentsiodunen Egoitza....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Informazio sexuala.....	32 04 44

ERKIBE KULTUR TALDEAK HBRI

HBren abenduko propaganda orrian (13. zb.) azaltzen den iradokizuna dela eta, zera esan beharrean aurkitzen gara:

- A) Uda bukaera aldean, Internet-en WEB orri bat sortzeko xedea hartu genuela, gure herria ezagutarazteko komunikabide berri baten bidez; eta froga garaian erabili genuen informazioa 1994. urtean turismo bulegoak eskeintzen zuten Zumaiako gida zela. Informazio hau irailaren bukaeratik ia urriaren bukaerara arte, hau da, hilabete eskas.
- B) Informazio hau aldatu eta eguneratu egin genuela urriaren bukaeran, udaletxeak aurrean azaldu duen Zumaiako gida berriaren arabera. Informazio hau euskaraz eta gaztelaniaz jarri ondoren, azaleko argazkia gure herriko paisaje bategatik aldatu genuen.
- D) Azaroaren erdialdean sail berriak erantsi genizkiola frantsesez eta ingelesez, eta tartetxo bat ere eskeini geniela herriaren ordezkari: denon izenak azaltzen dira. Eta EAJko ordezkarien argazkiak azaltzearen arrazoia zera da: WEB orria egiteko unean horiek bakarrik lortu izan genituela. Horrela, ordezkari guztien argazkiak azaltzea gustatuko litzaigukeenez, mesedez bidal iezaizkiguzue argazkiak lehenbailehen orrian txerta ditzagun.

GUTUNAK



Atal honetan zumaiarren ohar, iritzi, kexa guztiak bildu eta argitaratu nahi genituzke. Gutuna Forondara bidali edota Erribera kaleko buzoian utz dezakezu.

- E) Abenduaren lehenengo astean, Zumaiako bista panoramikoa aldatu, eta OLENTZEROREN irudi bat jarri dugu eguberri zoriontsuak opatzeko. Erantzun hau idazteko momentuan horrela gaude.
- F) Atal honetan sekula ez dugu inolako biologia edo ekologia klaserik eman nahi izan: arestian aipatu dugunez, informazioa Zumaiako gidatik atera genuen.
- G) Baita ere, esan beharra daukagu kritikak eta iradokizunak beti ongi etorriak izango direla (dagoeneko heldu zaizkigu batzuk posta elektronikoz), beti ere sarkasmoa ez bada igorlearen helburu bakarra.
- H) Eta zuentzat beste iradokizun bat, ondo enteratu zaitezte zuen orri hori idatzi eta banatu aurretik, zeren azaltzen dituzuen kritikak urriaren 12tik abenduaren 12a bitartean zuzendu baikenituen; eta aurrerantzean saia zaitezte denontzat onuragarriak diren kritikak azaltzen (posible ahal bazaizue, behintzat).

Dena dela, mila esker gure 370 bisitarietako bat izan zaretelako bi hilabete hauetan, eta Zumaiaren egin den lehen WEB orria irakurtzen eman duzuen denboragatik. Ziur gaude denborarekin hobetzea lortuko dugula.

Begirunez,

**Zumaiako
Erkibe Kultur Taldea.**



BALEIKEREN OHARRA:

Erreferentzi modura, hauek dituzue HBk argitaratutako orrialdeetan azaltzen ziren esaldi batzuk:

–“Euskarazko zatia txukundu, gure hizkuntzak hori baino gehiago behar eta merezi du-eta. Erabiltzen den euskara maila kaskar samarra da (...) gaztelaniaz baino informazio gutxiago ematen da”.

–“Santioko hondartzari buruz euskarazko bertsioan esaten dena: *eskoilera egin ondoren hondarra etengabe gehitu da eta duna interesgarriak azaldu dira bere ekosistema bereziaz. Ibai aldera aldiz padura antzeko ekosistema bat ikusten dugu. Biologia klaseak eman behar al dizkigute? Ba al dakite akaso zer den padura bat?*”

Habana
auto
Mekanika eta
karrozeria
Axular ibiltokia, 14 86 00 70
Zumaiako

ROSI
GARBIKETAK
• Etxeak eta dendak
• Enpresa eta auzo lanak
• Europa garbiketa eta tintaketa
Basadi 3-A
Tlf. 861670

BELARDENDA
SIWA
Esther Blanco
OSTEOPATA-MASAJISTA
Basadi 5-C behea
Tlf: 143404 - 860012

Gabonak

IKASTOLAKO 6.A MAILA

Izarraiztikan behera tripaundi gizona guztiok badakigu nola dun izena bera etorri eta bukatu da pena pake ederra degu berak dakarrena horixe izango degu opari onena.

Kolore asko dago berdin umorea larrosa gorria ta krabelin morea kalean pasiatzen jende dotorea pozik eta kontentu gaude gu ordea urte berria izan dadila hobea.

Oporrak ditugu ta gustora gabiltza urte osoa hola izango balitza Olentzerok bete du orain bere hitza sudur gorri horrekin alaituz bizitza bere ogibidea dauka ikazgintza.



IZAR MARTIN

Bonifazio Etxegaraing

Abenduko zenbakian azalduko *trengetoking* kirol arriskutsua egiten dutenei, Bonifazio Etxegaraing proba dezatela eskatuko nieke, ausartuz gero.

Bonifazio Etxegaraiko aldapa guztiok ezagutzen dugun Kutxa eta Laboralaren artean dagoen aldapa da.

Duela lau-bost bat urte obra egin zuten adokinak eta espaloi guztia aldatuz eta lehen zegoena baino okerrago utzi zuten. Adokinak distiratsiak dira, ezin lixuago, (pentsa nola irristatzen duten). Gero raiatu egin zituzten zerbait lortuko zutelakoan. Adokinak askatzen ari dira eta hau guztia gutxi balitz bezalaxe, behean peatoientzako zebrabidea pintatu zuten, (ni ez nintzateke pasatzen ausartuko kotxeren bat jeisten ari baldin bada. Eta kamioia baldin bada are gutxiago).

Eta espaloia, pentsa nola dagoen jendeak nahiago izaten duela adokinetatik jeitsi, bertatik egitea baino.

Euri pixka bat egiten duenarekin batera, adokinen artean eta espaloian irteadako belar eta lingirdarekin irristatzen denarekin, eskia praktikatzeko leku aproposa bihurtzen da.


Goiko plaza erosketak egitera joaten diren emakumeak, noiz eroriko beldurrez joaten dira eta dagoeneko bargaude pertsona multzo eder bat, bertan eroriak; batzuk txorkatila puskatu dute, beste batzuk esgintzea egin, koskorreko latzak jaso eta baita gauza okerragoak ere. Badirudi norbaitek izugarritzko aberia egin arte edo denuntzia sartu arte, ez dutela ezer aldatzeko asmorik.

Kirol honen helburua:

Aldapa erori edo irristatu gabe jeitea da, eta kotxean jeitsiz gero, inor aurretik ez eramatea. Kirol benetan arriskutsua.

Benetan esaten dut, ez dakit Udala nora begira dagoen. Estazioko bidea, Bonifazio Etxegaraiko aldapa, gurutze gorri zaharretik arranplaraino dena zuloz betea, etab.... Hitz batez esana: LOTSAGARRI.

Nire iritziz, Udalak herria pixka bat gehiago zaindu beharko luke.



ZORUEN KUTXILAKETA ETA BARNIZAKETA.
PARKETA JARTZEA.

Estazioko 12 Tel.: 861412


AIZMAN-KOS S.L.

SANEAMENDU ETA
ERAIKUNTZA MATERIALA

Iraeta
auzoa z/g
Aptdo. 78

Tlf/Fax: 14 81 24
20740
IRAETA -ZESTOA

Antonio Etxabe
Gizonezkoen erropak



Zunbillo 4
Tlf: 861407





Agur Olentzero, Ongi etorri 1997



Eguraldia punta-puntakoa ez izan arren jende asko bildu zen kalean kantari. Denak ez ziren Gabon Korukoak bezain profesionalak, baina ahaleginak egiten zituzten ahalik eta gutxien desafinatzeko.

Aurtengoan sekula baino Olentzero gehiago ibili ziren Gabon egunean gure herriko kaleetan zehar. Karroak tirata, behor gainean, bizkarrean hartuta... motorizatuta ikustea bakarrik falta izan zitzaigun.



Arkupe
Okindegia
eta gosariak
Kale nagusia, 2



ERTZ INFORMATIKA
TEL: 14-33-95

- WINDOWS,
- EXCEL, WORD
- FAKTELAGAZIA,

URTARRILA-MARTXOA

WINDOWS
WORD-EXCEL



Mendaro Mariñela 3

Tel./faxes 143395

Internet zerbitzua Forondan



Abendutik hasita Internet zerbitzua eskeintzen da Foronda kultur etxeko liburutegian. Momentuz froga garaian dago zerbitzu hau eta horregatik ez da batere kobratzen. Hori bai, erabiltzaile bakoitzak ordubeteko hiru txanda bakarrik hartu ahal izango ditu. Goiz eta arratsalde dagoen zerbitzua da eta txanda aurrez eskatu behar da. Orain artean jendearen erantzuna oso ona izan da eta laster erabakiko dira zerbitzu hau erabiltzeko baldintza berriak.

ARGI AIZPURUAK IRABAZI DU LOGOTIPO LEHIAKETA

Zumaiaren 650. urteurrena ospatzeko egingo diren ekitaldiak iragartzeko Argi Aipuruak egindako logotipoa erabiliko da, bera izan baita Lehiaketa eta ondorioz 70.000 pezeta irabazi dituena. Epaimahaikideak Argik aurkeztutako proiektuaren osotasuna azpimarratu dute eta Silvia Solas eta Daniel Carballoren lanek ere aipamen berezia jaso dute.



laburrak

Hitanoa aztertzeko beka

Udalak herriko hitanoa aztertzeko 800.000 pezetako beka bat emateko asmoa du. Lehenago ere eman izan dizuegu deialdi honen berri, baina aldatu egin dira eskatzen ziren baldintzak. Orain ez da beharrezkoa izango langabezia egotea eta taldeek ere eskuratu ahal izango dute. Besteak beste Euskal Filologian lizentziatua egotea baloratuko da eta hilaren 20an amaituko da dokumentazioa aukezteko epea. Argibide gehiago behar duenak udaletxera jo dezake, Euskara Zerbitzura.

Zine-Forum taldea berriz ere lanean

Hilabete batzuetan zehar ezer antolatu gabe egon ondoren, berriz ere martxan jarri da Ostarrena Zine-Forum taldea. Oraingoz hizketan ari dira, ahalik eta filme interesgarrienak ahal den modurik onenean ekartzeko. Dena ondo badoa urtarrilean izango da lehen emanaldia. Zinezaleok adi egon eta begiradatxo bat bota noizean behin Aita-Mariko kartelerari. Hurrengo hilabeteetan saiatuko gara aldizkari honetan bertan saio hauei txoko bat egin eta izango diren pelikulen berri ematen.



ZUMAI A



AUTO -ESKOLA

- * Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- * Praktika eta azterketak Azpeitian
- * GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea

☎ 861018

20750 ZUMAI A




TABERNA

Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57

Inda-Mendiren ekintza ezberdinak

1997an egingo diren irteera eta ekintzek iragartzeko koadernotxo bat atera dute.



Inda-Mendik ekintza ezberdinak prestatu ditu urtarrilerako. Batetik **Orientazio ikastaro** bat egongo da, Mendi Federazioko aditu batzuk emango dutena. Ikastaro honetan bai teoria eta bai praktika landuko dira eta 11-12 eta 19-20 asteburuetan izango da, 16 laguneko talde bati zuzendua.

Bestalde **bi irteera** antolatu dira: helduentzat goiz buelta bat hilaren

26an, San Prudentzio-Hirutontorreta-Udala eta gaztetxoentzat Zumarraga-Irimo-Zumarraga urtarrilaren 19an.

Inda-Mendi elkartekoek jakinarazi digute **federatu karneta** egiteko nahiz berritzeko Foto Mertzetik lehenbailehen pasatzea komeni dela. Azkenik, urtero zozketatu ohi duten otar ederraren zenbaki saritua **1.192a** izan da eta honen jabea **Junkal Santamaria**.

laburrak

Sari bat bestearen atzetik



Badakigu Joseba Ossa geldi eta ezer egin gabe egoten ez dakien horietakoa dela eta oraingoan Arrasateko Jokin Zaitegi itzulpen laburren lehiaketan lehen saria eskuratu du, 250.000 pezeta hain zuzen ere. Aurtengoan Alain Touraine soziologoaren "*Le racisme aujourd'hui*" lana euskaratu du, frantsesetik, eta erronka moduko bat izan dela aitortu digu Josebak.

Imanol Azkue ere saritua

Iaz Julene Azpeitiako zumaiarren saria irabazi zuen Imanol Azkuek 3. saria eskuratu du Ondarruko Augustin Zubikarai Narrazio Sarien III. edizioan. "Caly edota oroitza-penak" da ipuinaren izenburua eta 85.000 pezetako saria jasoko du lan honen ordainetan.



Oraindik ere bidea itxita

Oraindik ere itxita dago Zumaiatik Getariara doan N-634 bidea eta badirudi ez dutela martxoan baino lehenago irekiko. Lan handiak egiten ari diren arren ez da erreza izango lur-jausien arazoa behin betirako konpontzea.

*Jesuskoa
Fetelxea*



Ahaca 86 17 39 • Cikio - Zumaiain

M a i a u r
jolastokia



MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

Pletorexiari saria, Baleikeri laguntza



Grabaketa denetik egin behar izan zen.

Aurreko zenbakian adierazi genizuen nola Lekeitioko bideo eta zinema bilerarako aukeratu zuten Pello Azkuek egindako bideoa. Abenduaren 6an bota zuten eta 7an jakinarazi zutenez Argudiozko bideoen artean 2. saria egokitu zitzaion **Pletorexiari**, hau da, oroigarria eta 35.000 pezeta. Afaritxo bat egiteko iritsiko ote da?

laburrak

Gaizka Gastiain epaitua

Hil honen 9an izan du epaiketa Donostiako entzutegian Gaizka Gastiainek, intsumiso izateagatik epaitzen duten bosgarren zumaiarra. Epaietari buruzko xehetasunik ez dugu, baina orain arte egindakoen oso antzekoa izango zela pentsa dezakegu. Iazko otsailean Haritz Romanelli epaitu zutenetik urtebetean ez da beste epaietarik egon, EUDIMAN sartu berriak garenean Gaizkaren txanda iritsi den arte.

Bestalde, urtearen amaieran jakin ahal izan genuenez Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak gure aldizkariari 391.407 pezetako dirulaguntza ematea erabaki du. Kopuru honekin lasaiago egin ahal izango aldizkariaren kalitatea hobetzeko bidean egin beharreko aldaketak: ordenagailu berria erostea, diseinua berritzea, lana hobeto antolatzea, eta abar.

Mundu guztia izarrei begira

Natur Taldeak antolatuta aurtengo Gabonetan ere ihardunaldi interesgarri batzuk burutu dira, oraingoan **ASTRONOMIARI** buruz. Berrogei lagunetik gora hartu dute parte astronomiari buruzko oinarritzko ikastaroan eta ehundaka lagun egon dira Oxfordeko erakusketa ikusten. Iruñeko planetariora egin beharreko bixita, berriz, atzeratu egin da eta garaiz iragarriko da. Dena dela, planetario mugikor bat egongo da Beheko plazan hilaren 11 eta 12an.



JZETA
orrastegia

Urumea 6
Tlf: 862083

ANA
ETXEKO ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza
Tel. 861157

Paki

Belardenda

OSASUN NATURALA
Erribera kalea 2, Tlf: 143156 - 86 22 44

Paola: Zumaiako argia



1870. urteko irailaren 15ean hasi zen lanean gure *paola*. Hala ere, izan zen lehenago beste argirik Talai-Mendin, mendiari izena eman zion talaiari batek sua pizten baitzuen bertan eguraldi txarreko gauetan. Paola lanean hasi arte izan zen bertan talaiaria, eta baita ondoren ere, itsasargiaren ondoan dagoen egurrezko masta zaharretik banderen bitartez itsasuntziei seinaleak bidaltzen zizkion gizon bat ere izan baitzen bertan duela ez denbora asko arte.

Argi mota ugari

Bere ia 10 metroko dorretik era ezberdinetan egin du argia Zumaiako paolak. Lehenik, oliba-olioz eginiko su bat izan zen. Ea nork pizten duen gaur horrelakorik! Berehala, Eskoziako parafinagatik aldatu omen zuten. Azken hau, Ingalaterratik Bilbora eramaten zuten itsasuntziz, eta handik Zumaiara gabarra bidez ekartzen zuten. Bertan, Zumaiako farozainak Getariakoari zegokiona gurdiz

Joan den mendearen amaieran, Bilbo eta Donostiako portuen ondoren, Gipuzkoa eta Bizkaia guztiko porturik garrantzitsuena zen Zumaiakoa. 1860ko hamarkadan, Zumaiako portuak Pasaiaikoaren mugimendu bikoitza zuen. Horrela, portuaren sarrera txarra zela medio, Talai-Menditik egunero argitzen gaituen itsasargia eraiki zen.

Argitzeko sistema aldatuz joan da paolean.

eramaten omen zion. Baina hau ez zen betirako izan, petrolioagatik aldatu baitzuten erregaia, 1925ean elektrizitatea sartu zen arte. Azkenekoz iazko urrian aldatu omen zuten gure paoleko argi sistema. Orain arte, 500 w-ko bonbila batez egiten zuen argia, eta hau funditutakoan gas distiratzaila bat hasten zen lanean. Gaur egun, halogenozko bi lanparaz ematen da argia, eta denbora gutxi barru (pare bat hilabetetan) Pasaiaiko portutik zuzenean modem bidez kontrolatzea espero dute paoleko argia.



**OPTIKA
ZUMAIA**

Txomin Agirre Kaia, 1
20750 ZUMAIA Tel. 143057



Amertze

Erribera kalea 6
Tel./Faxa: 861707

Argia eta iluntasuna

Ez da dena argitasuna izan Zumaiako itsasargiaren bizitzan, honek hiru gerra jasan behar izan baititu. Karlitek txikitu egin zuten gerra garaian, eta ondoren 1881. urtean berriro eraiki behar izan zen. Kubako gerran ere bertako farozainak argia itzaltzeko agindua jaso zuen auskalo zeren beldurrez. Gerra zibileko garaian behin baino gehiagotan jaso zuten agindu bera.



Garai batean mugimendu handia izan zuen portuak eta paola ezinbestekoa zen.

Faroa eta farozaina

Ez da argia ematea Zumaiako paolean egiten den gauza bakarra. Egunero herrian dugun eguraldiaren berri bidaltzen da bertatik Igeldoko behatokira (euri kopurua, haizearen abiadura...). Gipuzkoa guztian lan hau egiten duen itsasargi bakarra omen da gainera. Hala ere, hau bertako

farozainak egiten dituen lanen artean bat gehiago da. Argia normaltasunez piztu eta itzaltzen dela zaintzeaz gain (hau automatikoki egiten da), etxe guztiaren mantenimenduz arduratu beharra baitauka, itokinak konpontzetik hasi etxea pintatu eta belarra mozteraino.

Duela 10 urtera arte farozaina bertan bizitzea derrigorrezkoa bazen

ere, gaur egun ez da hala. Lehen, bertan bizitzeaz gain gau ta egun etxean egotera behartuta zegoen farozaina, kanpora atera nahi bazuen baimen berezi bat eskatu behar zuelarik. Gaur egun hau ez da gertatzen, baina hala ere, bere lana behar bezela egiteko beharrezkoa dela eta bertan bizi da Zumaiako farozaina. ■

ILE APAINDEGIA

Merca
Uranga

Etkezarreta, 19 20750 ZUMAIA
Telefona: 862342

TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu 2
Tel: 143089

JEMAR

LOREDE NDA
LANDAREAK
LOREAK
HAZIAK
ZERAMIKAK
Erribera 1 Tel. 860375

SOLOZABAL AUTOESKOLA

Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilia
- Merkantziak eta bidalariak garaiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.


P. Etkezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416

Loitz

- *Eskola eta bulegorako materiala
- *Enkoadernazioak
- *Fax publikoa
- *Aldizkari eta opariak

Erribera 4
Tel/Fax: 143422

JOSE LUIS NUÑEZ: lau urte Zumaia argitzen



Zumaiaiko etxerik argitsuenean bizi da Jose Luis.

Azken lau urteak eman ditu 40 urteko santandertar honek Zumaiaiko itsasargiaren arduran. Bitartean, paolean bizi beharrak emandako denbora aprobetxatzen saiatu da: hiru urte egon da AEKn euskara ikasten eta informatikako bigarren maila ikasten dabil UNEDen.

ez da ezer gertatzen. Batez ere sagar garaian umeak sartzen dira sagarrak lapurtzera.

ZER IRUDITZEN ZAIZKIZU JARRI DIZKIZUTEN ARGIAK?

Argi horiek jartzeko tramiteak egiten hasi zirenean Pasaiko portuko itsas seinaleen departamentu guztia aurka zegoen, argi horiek paolaren argiaren irismena murrizten dutelako. Honen ondorioz, itsasargiak irismena eta fidagarritasuna galdu du.

Hala ere, Pasaiko portuko lehendakaria zenak, baimena eman zion udalari argiak jartzeko, eta Getariakoari berriz ez zion utzi.

EZ AL DIZUTE TRABARIK EGITEN ARGIA HORIEK GAUEAN LO EGITERAKOAN?

Itsasargiak duela gutxi arte 500 wattiotako bonbilak zituen. Argi horietako bakoitzak berriz 700 wattio ingurukoa ibiltzen du gaur egun, hortik atera kontuak. Leiho bat itxi behar izan det lo egin ahal izateko. ■

ZER EGIN BEHAR DA FAROZAINA IZATEKO?

Nik egin nuenean oposaketa batzuk gainditu beharra zegoen. Galdera gehienak elektrizitatea eta elektronikaren inguruan izaten ziren. Gaur egun ez det uste ezer berezia eskatzen denik.

EZ AL DA ASPERGARRIA FAROZAINAREN LANA?

Aspergarría izan daiteke zereginik ez duenarentzat. Neri gustatzen zait.

BAINA EZ AL ZAIZU GOGORRA EGITEN HEMEN GOIAN BIZITZEA?

Haize handia egiten duenean bakarrik. Itsasargiaren dorreak xirula forma duenez eta gainekaldean dituen zuloekin izugarritzko soinua ateratzen du haizeak, beldurrezko pelikuletan bezela. Itsasoa berriz oso gutxi entzuten da hemen, hormak oso lodiak dira eta.

EZ DA INOR SALATU INOIZ HEMEN SARTZEN?

Jendea askotan sartzen da baina

ERROTA
ERROTA
 OPIL - OKINDEGIA

Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68
 Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01
 ZUMAIA

AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
 ZUMAIA

Telefonoa: 862206

ARGIA

Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93
 ZUMAIA



ELIAS FERNANDEZ

Afrikatik etorri naiz eta hemen bizi naiz orain dala bi egunetikan.



JOSE MANUEL UZKUDUN

Ni emakumia naizela eta ume batzuk ekarriko dittutela.

Esaiguzu gezur bat



MAITANE, ELI, KARLA ETA AINHOA

Gabonak datozela eta urtarril guztia turroia jaten egongo gerala.



JON, JAGOBA, JON BEÑAT ETA ANDER.

Extremadurak Liga irabaziko du eta bilbotarrak UEFA n sartuko dira.



JON CORTES

Bero latza egiten duela.



JOSE MARI OSA

Espainola naiz.



PATXI IGARTUA

Ni guapoa naiz.

ARRAIN ETA MARISKOAK

7

BARAZKIAK ETA AURREZ PRESTATUTAKO JAKIAK

MARES

7 MARES IZOZTUAK

Larrañaga

Juanjo

HARATEGIA URDATEGIA

BASADI-TUSTEGUIA, 4-A ZUMARRA TEL. 062001

ENTER INFORMATIKA

BALTASAR DE ETXABE z/g ZUMAIA

☎: 86.11.75

☎: 86.05.50

ORDENAGAILU SALMENTA SERBITZU TEKNIKOA

HARDWARE ETA SOFTWARE INFORMATIKAKO KURTSOAK

"El Vienés" eta txiringitoa



Gazte sentitzen naizenez, proiektu berriek interes berezi bat sortzen didate. Ametitu behar det Gernika parkean josi duten txiringitoak, nolakoa izango zen jakin gabe, ilusioa sortu zidala.

Agian ezagun izango zaizue, Iruñeako Takonera parkean dagoen "El Vienés" kafetegia. Ez dakit eraikuntza zein urtetakoa den baina, nere ustetan estilo haundiarekin eraikia dago. Badu kafetegi honek, izateko era berezia; parke baten erdian egonda, inguruan eraikuntzarik gabe, enparantza bateko kiosko baten antzera eta zuhaitzei bizkarra eman gabe altxatzen da. Hau adibide bat besterik ez da. Gehiago aurki daitezke, Zumaia bezalako herritxo txiki baten antza gehiago duen beste herriren batean. Ze askok pentsa genezake, "El Vienés" izena duen kafetegi bat unibertsitatea eta guzti duen hiri haundi horietako batean bakarrik egon daitekela.

Bati baino gehiago entzun diot, Gernika parkea (izena alde batera utzita), Zumaian azken urte hauetan egin den proiekturik ederrena izan dela; alde guztietatik begiratuta.

Urbanistikoki, gizarte mailan eta batik-bat Zumaia eman dion aurpegi berriagatik. Lehen, Patxita Etxezarretaren atzealdean zegoen itsasuntzien deskargarako geltoki zaharra zen, hainbat eta hainbaten jolastoki ezkutua. Orain gutxi arte, hainbat eta hainbaten hondartza belarduna. Kromo kolezioa jokatuko nuke esaten, proiektu oso merkea izan dela. Ba guzti honengatik eta zuei burura etorriko zaizkizuen beste arrazoi askorengatik, uste det, merezi dugula parkea erabiltzen dugun guztiok honen itxura zerbait zaintzea. Txiringito batek errentabilitatea haundiagotuko badio, kurioxo egin (ez parkearen erdi-erdian, pasealekuaren intimitatea pikutara bota duelako) eta eginda badago gutxienez itxuroso mantendu, ze, eraiki berria kutrea bazen, orain izozki txabolak, edari makinak, aire aparailuak, ikatzak, fregonak, baldeak, etab. luze batek are kutreago utzi du parke zen hau. Iruñean, uste det lortu dutela parkeko kafetegi bati "El Vienés" izenez deitzea; Zumaiakoa "El Txiringito" izenez ezagutzen den bitartean. ■

Daniel Carballo Ostolaza

ENTRA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza 15
Tel. 862458



MENDI - ONDO
ELEKTRIZITATEA

Axular 14
20750 ZUMAILA

Telefonoak:
860074 - 861569

- ALARMAK
- ANTENAK
- Banakoak
- Kolektiboak
- Satelite bidezkoak
- Atezain automatikoak
- Eta abar.

KOSTA GAS



GAS ETA
KALEFAZIO
INSTALAZIOAK

Etxezarreta, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAILA (Gipuzkoa)

expert
ELEKTROGAILUAK

Mertxe Aizpurua
expert eta
Repsol-Butanoren
Banatzaile Ofiziala

GURE TXOKOA
TABERNA

Kaxuelita eta pintxo
ezberdinak

San Pedro kalea Zumaia

PIZTIAREN IRUDIA

... HOKA KON DEN!...

≡KLIKE≡






NIRE IRUDIA HIRE
AMARAZ HARTU OUK..

„ORAIN NIK HICE
GORPUTZ ETA ARIWA
HARTUKO DIZKIAT..“

„NERE ERREINUA
HASTEKO BALIAGARRI
IZANGO BAIT
ZAIZKIT..“

„ANTIKRISTOAREN
ERREINUARI
HASIERA EMTEKO!“

HIRU





Gazte Batzorde dinamikoa



Gazteen artean giro polita egon zen Gabon egunean.

Gazteen inguruan aipagarriak iruditzen zaizkigu azken asteotan Gazte Batzordeak antolatu dituen eta urte hasierarakoprestatu dituen ekintzak. Aipa ditzagun lehenbizi pasatakoak. Abenduaren hasieran igandetako asperraldiak akabatzeako asmoaren barne, ipuin kontaketa bat izan zen Oxforden Joxe Mari Karrereren eskutik. 30 lagunetik gora bildu ziren bertan eta oso esperientzia polita izan zen batez ere emakumeen inguruko istorioak entzutea.

Kirolari eta zehazki mendiari eskeini zaio tartetxo bat Gazte Batzordean. Hasteko Zumaia eta Deba arteko ibilbidea egin zuten zenbait gaztek, baina komeniko litzateke aurrerantzean jendea pixka bat gehiago animatzea. Parranda gutxiago eta denok mendira, gorputzak eskertuko digu eta!

Larraulerako irteera ere erdi prestatuta zegoen, baina baserriaren egoera, eguraldia, eta batez ere jendearen gogoia ikusita, irteera hau atzeratzea erabaki da. Noiz egingo den? Lasai, garaiz jakinaraziko dugu eta. Egindako gauzen artean, azkenik, Olentzeroa aipatu behar da. Gabon egunean 40 pertsona baino gehiago ibili ginen herriko kaleak trikitixa eta panderoz alaitu eta gure ahots zoragarri zigortzen. Saiatu ginen behintzat, eta hurrengorako fitxaje batzuk egin beharko dira, gizonezkoak batez ere.

Erregeen tankerako Olentzeroa etorri zitzaigun, behor gainean eta goxokiak banatzen, paje eta guzti. Datorren urterako zerbait berria pentsatu beharko da, Olentzero motorizatzea (traktorean, motoan...), goxokien ordeztintxaurrak botatzea edo antzeko zerbait.

Urte berriarekin batera Gazte Batzordea lanean hasi da eta horren adibidea da antolatu berri duen grafiti ikastaroa. Urtarrilaren 11n hasi eta otsailaren 25a bitartean izango da, 6 larunbat aprobetxatuz. Irakaslea Arte Ederrak ikasten ari den iruindar bat izango da, grafitigintzan esperientzia zabala duena. Aipatu beharra dago ikastaroa dohain dela eta dagoneko 20 lagunetik gora eman dutela izena. Oraindik ere parte hartzeko asmorik baduzu pasa zaitez Nikoletik eta eman ezazu izena lehenbailehen. Martxa honetan, ikasle guztiak lanean jarriz gero laster gure herria ederki dekoratuta ageriko zaigu.

Badakizu, Gazte Batzordeari dinamika pixka bat eman nahi badiozu etorri bileretara eta parte hartu antolatzen diren ekintza guztietan! ■



Hasiere batean ibilaldiak Zumaia inguruan izango dira.

Auto - Konponketak

ELKAR



PEUGEOT

Estazioko kalea
20750 ZUMAIA

Telefona: 860201



Tfnoa: 143379

Maitemindu naiz

Manteminduta nago... Txoratuta benetan. Ene! zein polita dagoen kalea elurrez estalia. Loreak gorde dira udaberrian loratzeko. Lore horien artean nire maitea azalduko da ni bere besoetan laztantzeko.

Erakartzen gaituen norbait ezagutzen dugunean gure lehenengo nahia pertsona hori "ezagutzea" izaten da. Zer gustatuko zaio? zenbat diru izango du? (diote batzuk), non ibiliko da?, zein izango dira bere lagunak? etabar luze bat. Geziak ikutu eta gero ezagutu nahia etortzen da. Erakartzen gaituena ezagutu nahi izaten dugu eta era berean gutaz dakiguna erakutsi. Sakoneko nahia berriz "gure osotasunean" maitatuak izatea da. Oso eder azaltzen zaigu guztia inguruan. Baina zein da askotan benetako errealitatea? Eraiki dugun "nortasunak" gutaz gustatzen ez zaiguna ondo ezkutatzen eramaten gaituela. Maskara batekin azaltzen gara bestearen aurrean.


Hau noski, gure burua ondo engainatzea da eta ondorioz beste pertsona ere bai. Cupido interpretatzen dugun modura maiteminduta egotea landu behar ez den zerbait dela iruditzen zaigu, berez dakarrenarekin nahiko eta gehiegi badugula. Txoramena bai ederra!

Irrazionalki, maite dugun pertsonak gure arazo guztien soluzioa dakarrela uste izaten dugu. Honela izanda, maitemindu eta gero nolako "tragikomedia".


Era honetan maiteminduta, maite dugun hori gure pentsamenduetan nagusi izaten da eta hauen gidari gehienetan.

Baina egoera "zoragarri" hau, landu gabeko konbibiendiarekin zeharo aldatzen da. Gorde dugun hori azaltzen doan heinean bestea gure arazoan konponbidea ez dela konturatzen gara. A ze nolako disgustoa! Beste batez maitemindu beharra daukagu. Eta berriro danbateko ederra. Soluzioa ez da honela maitemintzea.

Maskarak eta itxurak ihaute-rietan ondo etortzen dira. Maitemintzea benetako ezagutu nahiarekin elkartzeak ekar dezake zoragarri sentitzea. "Hoberena" izateko desioak benetako ezagutzaren desioa estaltzen du sarritan. Erakarpina mantentzeko informazioaren elkar trukaketarekin lagundu behar dugu. Garen bezala azalduz. Hau izan daiteke bidea maiteminduak egoteko nahi dugun guztietan eta nahi dugun guztiekin. Nahi duguna eskatu eta garena eskeiniz. ■



Ainhoa Iturbe



NIKOL-ENEA

taberna

Amaiako plaza Tfnoa. 861440

DISKO-BAR



Alai Auzotegia 2.



GILANO

LIBURUDENDA

Paperdenda
Aldizkariak
Fotokopiak
Enkuadernazioak

Baltasar Etxabe 7
Tlf: 14 31 91



ZURICH

ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1
Tel. Faxes. 860169

Alberdi

GIZONEZKOEN MODA



Erribera kalea 6
Tlf: 861155

Hogeita hamar urtetik gora daramatza mendizale honek gure herrian bizitzen, baina oraindik ere donostiarra dela esaten du harro.

Joakin Zubeldia

Bere bizitzan zehar denetik egin eta probatu du: eskia, eskalada, peska, espeleologia, alpinismoa,

eta abar. Pirineoak eta Alpeak goitik behera korritu ditu, eta susto bat edo beste hartu ere bai. Orain, 61 urtekin jubilatuta, perretxiko eta andarika

bila joaten da, baina ez du inola ere arriskura bultzatzen duen izpiritu gazte hori galdu.

“Mendia maite duenak aberria ere maite du”

KIROL BERRITZAILEAK EKARRI ZENITUEN: ESKALADA, PESKA SUBMARINA... ARRISKUA MAITE AL DUZU?

Bai, horrelako kirolak gustatzen zaizkit, baita espeleologia eta eskia ere, adibidez. Iruditzen zait eskia eskalada baino arriskutsuagoa dela, askoz errezagoa da erortzea eta belaunetan aberia handiak egin ditzakezu.


AUKERA IZANEZ GERO ZER KIROL BERRI PROBATUKO ZENUKE?

Parapente eta ala deltak izugarri tentatzen naute, eta nahiko zaharra naizen arren oraindik ere ez dut probatzea baztertzen. Puenting-a berriz astakeria dela iruditzen zait, ez diot ezer positiborik aurkitzen.

PESKA EGITEN ERE GUSTORA IBILTZEN ZARA...

Peska submarina bizio bat da, zoragarria da. Zumaian okerrena da ura zikina egoten dela jeneralean, nahikoa da itsaso pixka bat egotea hondoa mugitzeko. Donostiako lagun batzuekin hasi nintzen, ez trajerik eta ez ezer erabili gabe. Lehen ez zegoen inongo problemarik bueltatxo bat eman eta 20 andarika hartzeko, baina azken urteotan zeharo urritu dira.

DUELA URTE BATZUK SUSTO BAT IZAN OMEN ZENUEN.



Bai, kongrio batekin izan zen. Itzurungo plaian badaude zulo batzuk ia beti kongrioak izaten dituztenak. Behin hartu nuen kongrio bat eta ateratzen ari nintzela harpoia gaizki sartuta zeukan eta bertatik askatu eta besora salto egin zidan. Puntu batzuk eman behar izan zizkidaten eta marka ederra geratu zait. Orduetik aurrera ez naiz kongrioekin berriz ere saiatu, pakean uzten ditut.

ZUMAIAN BA AL DAGO MENDI-ZALETASUNIK?

Bai, jende gaztea gero eta gehiago mugitzen da, batez ere Pirineo aldera, baina igandetako ibilaldietara inor gutxi azaltzen da. Gazteak parrandan ibiltzen dira larunbatean berandu arte eta gero ez

dute igandetan jeikitzekeo kemenik izaten.

NOLA HASI ZINEN MENDIRA JOATEN?

Betidanik gustatu izan zait mendia. Zazpi-zortzi urte nituela gurasoekin joaten hasi nintzen eta ez naiz inola ere aspertzen. Eskaladan beranduago hasi nintzen, hogeitau urte inguru nituela. Donostiako talde batekin ikastaro bat egin eta gero mugitzen hasi ginen: Amezketa, Txindoki, Santa Barbara...

GARAI BATEAN IKURRINAK ERAMATEN OMEN ZENITUZTEN MENDIRA.

Debekatuta zegoenean Aberri Egunean Aizkorrira igotzen genuen. Lehen mendizale denak abertzaleak ginen, eta oraindik ere neurri batean mantentzen da hau; mendia maite duenak aberria ere maite du.

NOIZ HASI ZINEN MENDI HANDI HORIETARA BISITAK EGITEN?

Inguruan hasi ginen, eta gero Pirineo aldera jotzen hasi ginen: Auñamendi, Hiru Erregeen Mahaia... Hogeita hiru urte inguru nituela Alpeetara joan nintzen lehen aldiz, eta orduan egin nituen Mont Blanc (altuena da, baina inola ere ez zailena), Eiger, Cervino... Nire ustez egin dudan mendirik zailena Eiger izan da. Oso

MAITE ILEAPAINDEGIA



Berezitasuna ileen sendabidean

Amaiako plaza z/g Tlf: 143278

ITSASKI

supermerkatua



Urumea kalea z/g Zumaia




SUKALDEKO ALTZARIAK

DORNUTEGI

ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basadi Auzategia, 10 behea
Telefona: 862051

20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



Aurten Gran Vignemalera igotzeko asmoa du Joakinek. Ea eguraldiak laguntzen dion!

gogorra izan zen eta gainera kriston eskapada egin genuen; material eskasa generaman eta jeisterakoan trumoiak harrapatu gintuen; gutako batek txirrist egin eta korredore batean behera erortzen hasi ginen; soka haitz handi batean katigatu zen eta han geratu ginen zintzilik, bi lagun alde batean eta beste bi bestean; pioleta gu baino motelago jeitsi zen, eta eskutara etorri zitzaidan.

Zorte latza izan genuen, ia bertan geratu ginen! Eigerrek daukan miradore batetik jendeak dena ederki ikusi zuen eta berehala etorri ziren laguntzera. Mendian beti zailena eta arriskuetsua jeistea izaten da.

GEHIAGO JOAN AL ZINEN ALPEETARA?

Bai, askotan joan izan naiz. Mont Blanc-era 6 aldiz igo naiz, eta Cervinora ere behin baino gehiagotan, baina Eigerrera behin bakarrik. La Aguille Verten ere izan ginen Zumaiako talde bat.

NOLA ETA ZERGATIK JOAN ZINATEN KILIMANJARORA?

Mont Blanc-era joan ginen batean esan genuen: Europako handienean egon ondoren, zergatik ez goaz orain Afrikako mendirik

altuenera? Ez genekien non zegoen ere, Kenia edo Tanzania aldean, baina txukun prestatu genuen espedizioa. Hasieran 13 lagun ginen, baina Rafael del Pilarrek hemen geratu behar izan zuen, gaixotuta. Duela hogeituroko kontuak dira hauek eta orduan hilabete inguru egin genuen han. Gogorra izan zen, Angel Rosen ere handik zebilen Arabako espedizio batekin eta egun batean egin nahi izateagatik oso gaizki pasa zuten, alturako gaitzak jota. Baina bestela Kilimanjarok ez du zailtasun handirik.

HONEN ONDOREN AKONKAGUA ETORRI ZEN, AMERIKAKO MENDIRIK GARAIENA.

Han denetik pasa zitzaigun. 1978an egin genuen espedizio hura. Hasieran ez ziguten pasatzeko baimenik eman nahi, Txile eta Argentina gerran zeudelako, baina azkenean lortu genuen mendi magalera iristea. Aklimatatzen egon ginen eta pixkanaka igotzeari ekin genion 5 kideok: Rafael del Pilar, Javier Odriozola, Kepa Urruzuno, Fernando Zearreta eta nik. Berehala, ordea, amerikano batekin egin genuen topo; oso gaizki zegoen, eta bere lagunak abandonatu egin zutela esan zigun. Beheko kanpamendura jeitsi

genuen, eta gure sendagileak biriketako edema aurkitu zion; guk sueroak eta horrelakoak eraman genituen eta tratamenduan jarri zuen. Berriz ere gora abiatu ginenean hanketan konjelazioak zituen bat topatu genuen eta beste bat eguzkiak erdi-itsututa geratu zena. Haiei ere laguntzen geratu ginen.

“Peska submarina bizio bat da, zoragarria da”

Gorago granadino bat aurkitu genuen, eta hura ere lur jota zegoen, bakarrik, diarrea izugarriekin, kristo bat eginda zegoen eta burugogor hark ez zuen jeitsi nahi gainera. Bere gogoaren kontra jeitsi genuen, zero azpitik 25 gradura geundelako eta oso baldintza kaskarretan zegoelako; gero, bizia salbatu ondoren, haserretu egin zen jeistera behartu genuelako. Javier Odriozola eta biok tontorrerako azken ahalegina egiten saiatu ginen, baina eguraldiak ez zigun batere lagundu: elurra, haizea, -30° C-ko temperatura... ezin izan genuen 6.000 metrotik gora egin. Oso zorte txarra izan genuen, guztiei laguntza emateagatik bidean geratu ginen. Erreskate espedizioa zirudien gureak, mendiko enfermeroak ginela ematen zuen.

EZ AL ZENUTEN BERRIZ ERE JOATEA PENTSATU?

Pentsatu bai, baina diruaren kontua ere ez zen oso samurra. Ez zegoen «babesle ekonomikorik» eta joan baino lehen kotxeak pintatzen eta era guztietako lanak egiten ibili ginen. Akonkaguaren ondoren Alpeetara eta Pirineotara joaten jarraitu dugu, eta Euskal Herrian bertan ere izugarri politikak diren mendiak ere badaude.



Ekin
ELEKTRIZITATEA

ISTALAZIO ELEKTRIKOAK
ISTALAZIO MUSIKALAK
AKUMULADOREAK
ALARMAK
ANTENAK
PORTERO AUTOMATIKOAK

DENDA: K. Nagusia, 8 - Tell. - Fax: 14 30 97
TAILERNA: Larretxo, 10 behe 1º - Tell. 14 34 74
20750 ZUMAI A (Gipuzkoa)

JOSEBA OSSA

-ITZULPENAK-

euskara-gaztelera-katalana -
ingelese-frantsesa

Tel-Faxa: 148306-148065



INPERNUPE
ELKARTEA

Erribera kalea Telefonoa: 861523
ZUMAI A

ZEIN DA BA HEMENGO MENDIRIK POLITENA?

Niri Aralar aldea ikaragarri gustatzen zait, denetik dago: basoak, haitzak... Urbia inguruan ere paraje ederrak daude.

ETA PIRINEO ALDEAN?

Balaitous ingurua gustatzen zait gehien, Piedrafita aldea: lakuak, Gran Faxe, Infierno, Pantikosa... zoragarria da.

MENDIREN BAT EGITEKO IRRIKITAN GERATU AL ZARA?

Aurten ahal bada Vignemale egin nahi nuke. Hara joan izan naizen bakoitzean eguraldi txarra egin izan du eta oraindik ez dut gailurrera iristerik lortu, Petit Vignemalera bakarrik iritsi naiz. Gran Vignemalera igo nahi nuke, bizi honetan egiten dudana azken gauza izanda ere.

ZERTAN ALDATU DA MENDI-ZALETASUNA?

Lehen askoz zailagoa zen batetik bestera mugitzea, eta denbora askoz gehiago behar izaten genuen kanpora

joateko. Orain, gainera, materiala ikaragarri aldatu da, % 100. Lehen eskalatzeko klabijak geuk egiten genituen, egurrezko takoak erabiltzen genituen, kalamuzko sokak, pertsienetako zintak... Oraingo tresnek eskaladara ekarri duten aldaketa erabatekoa izan da.

ZEIN IZAN DA MENDIAN IZAN DUZUEN UNERIK DESATSEGINENA?

La Aguille Verten ikusi genuen istripu latz bat. Goizean gurekin hitz egiten egon ziren bi frantses erori eta gure aurretik pasa ziren, txiki-txiki eginda, hezurak ageri-agerian... Gorpuak jasotzen lagundu genuen eta izugarri gogorra izan zen hura.

ETA UNERIK ATSEGINENA?

Kilimanjarorako igoera izan zela esango nuke, dena oso ondo irten zelako. Oso atsegina izan zen une hura, zentzu guztietan. Dena primeran joan zen, eta gero Zumaian, Donostian eta beste herri batzuetan diapositibamontajea erakusten ibili ginen, lan oso polita baitzen.

URTE PILA BAT DARAMAZU INDA-MENDIN, AZKEN URTEOTAN PRESIDENTE LANETAN.

Bai, 30 urte badira hemen nagoela, eta zahartzen ari naiz ni ere. Jende berria sartzea nahi nuke Inda-Mendira, ideia eta proiektu berriak lantzeko, gauzak aldatzeko... Zumaian badirudi kargu bat hartu eta bizi guztirako dela, eta hori ez da komenigarria. Errelebo falta dagoela uste dut, eta jendea etortzera gonbidatu nahi nuke.

“Akonkaguan mendiko enfermeroak ginela ematen zuen”

SASTRE ERE IBILI ZINEN GARAI BATEAN.

Ezkundu ondoren aritu nintzen urte askotan, trajeak egiten, baina garai txarrak etorri ziren eta duela 25 urte inguru laga nuen lan hura. Bost urte badira azken trajea egin nuela, baina oraindik ere erraz asmatuko nuke.

EXAJERATU SAMARRA ZARELA ESAN DIGUTE?

Ni? Ez dut uste, baina igual hala izango da.

HOR IBILTZEN OMEN ZARA «HABIA 18.000 TIOS EN LA CUMBRE» ETA HORRELAKOAK ESATEN.

A bai, batzuk «Dieciocho» deitzen didate. Ohitura daukat «18 veces» eta horrelakoak esateko. Asko gustatzen zait zenbaki hori.

ZER PRESTATU DU INDA-MENDIK 1997RAKO?

San Pedro inguruan Picos de Europa alderako irteera bat antolatuko dugu, eta iraileko zubian Pirineo aldera joan nahi dugu, trabesia bat egitera. Horrez gainera, helduentzat irteerak prestatuko ditugu hamabostean behin, eta txikienezko beste batzuk ere bai. ■



Materiala ikaragarri aldatu da. Ezkerreko argazkia Mont Blanc lehen aldiz igo zueneko da; eskubikoa Irurtzungo Hermana Mayorren ateratakoa.

ZALLA

Taberna - Erretegia
PLATER KONBINATUAK
OTARTEKOAK

OILASKO ERREAK

San Pedro, 4 - Zumaia Tlf: 862387

xirula



TELEBISTA
BIDEO
HI-FI

Erribera kalea, z/g 20750 ZUMAIA
Tel. 861705

ARGAZKI ETA BIDEO
ERREPORTAIK
ERREBELATZEAK
KAMARAK
MUSIKA

EGUZKI
PUB
KORTEL
BEREZIAK
Basadi Auzategia
9-A 2-B
ZUMAIA

Garibaldi eta Boca Juniors txapeldun



Garibalditarrek ez zuten inilako zailtasunik izan finala irabazteko.

Garibaldik saskibaloian eta Boca Juniors azpeitiarrak futbiton, izan ziren aurtengo Gabonetako txapelketako irabazleak. Bigarren postuarekin konformatu behar izan dute Ostrolatza ostolazatarrek eta Axier kirolakekoak.

Hilaren 3an jokatu ziren finalak polikiroldegian eta bertan ikusle dexente bildu zen. Lehenbizi futbitokoa jokatu zen eta emozio ugari izan zen partiduan. Azpeitiarrak 1-0 eta 2-1 aurreratu ziren, baina zumaiarrek berdintzea lortu zuten, partidua amaitzeko minutu bat baino gutxiago falta zela. Bost minutuko prorrogan golik izan ez zenez penaltietan erabaki behar izan zuten txapela herrian bertan geratu edota Azpeiti aldera zihoan, eta azkenean xapuek irabazi zuten, atezainak 3. penaltia geratu ondoren.

Saskibaloiko finala izan zen jarraian eta bertan ez zen kolorerik izan eta Garibaldik errez lortu zuen garaipena Ostrolatzakoen aurka, 30 puntu inguruko aldearekin.

Aurten guztira 16 talde aritu dira futbiton eta beste 6 saskibaloian. Ping-pong-eko txapelketarik ez da jokatu jende gutxi apuntatu zelako. Ea datorren urtean jendea animatzen den.



Emozioz betetako futbitoko finalean herritarrek bigarren geratu ziren.

izerdi tantak

Iñaki Osa puntista gaztea Milanera

Zesta-puntan mugimendu handia dago azken urte honetan. Duela juxtu urtebete Unai Zinkunegi Mexikotik Floridara nola joan zen kontatu genizuen. Gero Alberdi eta Enbilek profesionaletarako urratsa eman zuten eta hor dabilta. Eta orain jakin ahal izan dugunez Iñaki Osa (OSA III) gaztea Milanera joan da jokatzera eta sei hilabeterako kontratua sinatu du. Ea honi ere besteei bezain ondo doakion!

Huntza, o.k.



DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIKKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

SERIGRAFIA



KUKUTZ

baltasar
etxabe 7 ZUMAIA

Telf:
860569



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19
20750 ZUMAIA

Telefona: 861433
Fax: 861067



Bigarren fasea hastera doa

Lehen fasea amaitzeko partidu bakarra geratzen da eta dagoeneko badakigu LIGA eta KOPA nork jokatuko duten.

Ligarako sartu diren taldeak honako hauek dira: Axier kirolak eta C. Landeta A multzotik, Gesem eta Zumea Taberna B multzotik, eta Kabi-Genelek C multzotik.

Intxausti eta Mendi-Ondo taldeek jokatuko duten partiduan erabakiko da nork jokatu duen liga eta nork kopa, hala ere Intxaustik abantaila du, nahikoa baitu partidua berdintzea ligan sartzeko.

Gainontzeko 10 taldeak bi multzotan banatuko dira eta KOPA izango dute jokoan, apirila bitartean. Aipatu beharra dago, azkenik, Ajax Pino taldea kanporatu egin zutela partidu batera gutxienez behar diren 7 jokalaria azaldu ez zirelako.

EMAITZAK

Ganbara 2 - Gesem 9
 Urberu sag. 0 - Leize 9
 Basusta 0 - Gesem 6
 Ekin Buiraker 5 - Inpernupe 2
 C. Landeta 6 - Axier kirolak 2
 Zumea 5 - Azkue & Eguzki 1
 Axier kirolak 3 - Leize 1
 Ipurbeltz 3 - Basarri 8
 Kabi Genelek 2 - Mendi Ondo 2



Ahal den modura egin behar izaten zaio aurre hotzari.

A multzoa	Jok	I	B	G	AIG	AuG	PT
Axier kirolak	5	4	0	1	24	8	12
Landeta karrozeria	5	4	0	1	19	10	12
Leize taberna	5	3	0	2	23	9	9
Ekin Buiraker	5	2	0	3	14	20	6
Urberu sagardotegia	5	1	0	4	9	24	3
Inpernupe	5	1	0	4	8	26	3
B multzoa							
Gesem	4	3	0	1	21	8	9
Zumea taberna	4	3	0	1	11	6	9
Azkue & Eguzki	4	2	0	2	17	13	6
Basusta Erretegia	4	1	0	3	7	16	3
Ganbara	4	1	0	3	6	19	3
C multzoa							
Kabi - Genelek	4	2	1	1	13	9	7
Intxausti harategia	3	2	1	0	11	8	7
Basarri jatetxea	4	2	0	2	17	16	6
Mendi - Ondo elek.	3	1	1	1	10	8	4
Ipurbeltz - Gaztañaga	4	0	1	3	9	19	1

goofy
 HAUR JANTZIAK
 Amaiko plaza, z/g
 Telef. 860959
 ZUMAIA

Augustin
 HARATEGIA
 URDAITEGIA
 Itzurum Zuhaitz-bidea, 1
 20750 ZUMAIA Telefonoa: 862430

julio curiel
 PELUJERO
GIZONEZKOENTZAT ILE-APANDEGIA
 Erribera kalea 23



Iker Ortiz, ia-ia txapeldun.

Joan den abenduaren 29an jokatu ziren Telleriarteko zelaietan Euskadiko ziklo-kros txapelketak. Eliteko korredore gutxi inguratu ziren Legazpiko auzo honetako izoztutako zirkuitora, baina kadete, jubenil eta 23 urtez azpikoen kategorian maila eta partehartze ederra izan ziren. Kadeteen lasterketa izan zen politena zalantzarik gabe eta honetako protagonistetako bat zumaiarra izan genuen, gainera: Iker Ortiz.

Iker Ortiz Euskadiko txapeldunorde



Oier Egaña ere oso ondo aritu zen.

Iban Maioz lasartearrekin nor baino nor aritu zen azken itzulietan eta helmugan segundo gutxi batzuk atzeraxeago sartu zen, bigarren postuan. Gaizka Gonzalez laugarren sailkatu zen eta Mikel Aizpurua, seigarren. Maila honetan primerako denboraldia egiten ari dira zumaiarrak. Hogeita hiru urtez azpikoen kategorian, bestalde, Oier Egaña zazpigarren postuan helmugaratu zen. Hil honen 12an jokatuko dira Ispasterren Espainiako txapelketak. Animo mutilak!!

EGOKI

ERLOJU DENDA

E.Gurrutzaga plaza, 6
ZUMAIA

AZKUE

Taberna-Jatetxea

- Jantokia zabalik
- Oheak
- Eguneko menua eta Karta
- Bataioak eta Jaunartzeak

Basadi 9

Tel.: 861780

AHOLKULARITZA
IRURE
ASESORIA

Erribera,17 Tel/Fax: 862600 ZUMAIA

AUTOS ZUMAIA

Auto Konponketak

Juan Belmonte kalea, 45
Tel.: 851485



UROLA
TXIRINGITOA

Eguneko menua
Parrila bereziak

Gernika parkea

Tel.: 862656

FORONDAKO AUKERAK



INTERNET

Liburutegian 10etatik 1etara eta 4,30etatik 7,30etara. Aurrez ordua eskatu

LIBURUTEGIA

Haur eta helduentzat. Astegunetan 10etatik 1etara eta 4retatik 8etara. Larunbatetan 10etatik 1etara.

ARTXIBO HISTORIKOA

Artxiboan kontsultak egiteko egunero, 10etatik 1etara.

ARGAZKILABORATEGIA

Txuri-beltzeko argazkia. Egin zaitez Argazki Elkarteko bazkide!

IKASTAROAK

PINTURATAILERRA

Aurrekoaren jarraipena izango da, arratsaldetan 4retatik 8etara.

KONTROLMENTALA

Larunbatetan, 10etatik 11,30etara. Otsailaren 1ean hasiko da eta martxoaren 22an amaitu. Urtarrilaren 27a bitartean egongo da izena emateko aukera.

MACHÉ PAPERA

30 orduko ikastaroa izango da eta urtarrilaren 25ean hasiko da. Izena emateko epea hilaren 20an itxiko da. Matrikula 5.000 pezeta.

“Ihauteriak 97” kartel lehiaketa



JULENE AZPEITIAKO SARIBANAKETA

Foronda kultur etxean izango, urtarrilaren 10ean, arratsaldeko 7,30etan. Xabier Mendiguren, Hasier Etxeberria eta Joseba Ossari sariak emateaz gain ELISABET PODOLAK flautajolearen emanalditxo bat ere izango da.

- Sari bakarra egongo da, 60.000 pezetakoa.
- Zumaiarrei zuzendutako lehiaketa da.
- Kartelaren neurria DIN A-3koa izango da.
- Testua: “Zumaiako Ihauteriak 97”.
- Egile bakoitzak gehienez ere 3 lan aurkez ditzake.
- Aurkezteko azken eguna: urtarrilaren 24a.



BASUSTA
ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25
Telefonoa: 862073

20760 ZUMAIA



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
Tel./Faxa: 143143

Galdona
burdindegia

Mendaro marinela, 1
Juan Belmonte, 15
Tel.: 861117-143346 Faxa: 861330

Zinea



THE FAN (1996)

ZUZ.: Tony Scott
 AKT.: Robert de Niro
 Wesley Snipes

Gabonak heltzean Aita Mari zineman eduki dugun pelikulen kalitatea pixka bat igo bada ere (*El Funeral*, *Trainspotting...*), festak amaitzean zinea ere egunerokotasunera itzuli da, hau da, tiroak, hautsitako besoak, eta abar. Hauen artean *The fan* aukeratuko dugu, ez ona delako, Robert de Niro azaltzen delako baizik.

De Niro, oraingo honetan beisbolzale den pertsona arrunta dugu eta bere talde maitatueneko jokalaria den Wesley Snipesen jarraitzaile sutsua. Jokalari honen kontra azaltzen den edonor garbitu egingo du. Psikopataren papera betetzen du de Nirok eta hasiera batean ederki egiten bazuen ere (*Taxi Driver*) orain lan honetan "enkasillatuta" ikusteak pena ematen du. *The fan* Tony Scotekin egiten duen lehen lana da. Zuzendari honek, ohikoa denez, ederki zaindutako irudiak erakusten ditu, eta horretan maisua dela onartu behar da *El ansia* eta *Amor a quemarroparekin* erakutsi zuen bezala. Oraingo honetan, aldiz, ez zaizkio gauzak hain ondo atera, istorio honetarako bideoklipen estetika erabili baitu, eta hori, egia esan, ez da batere erakargarria.

Zine kritikak

EGIN DV Egunkaria

Zine kritikak	EGIN	DV	Egunkaria
Mis dobles mi mujer y yo Zuz: Harold Ramis	★	★★	—
Glimmer man Zuz: John Gray	—	—	—
The fan Zuz: Tony Scott	★	★	★

IRAKURKETARAKO AUKERAK

Hemen duzue Udal Liburutegian aurki ditzakezuen liburu berri eta interesgarrien aukeraketa bat.
 Dasta eta goza itzazue ahal duzuen neurrian



- ¿Qué me quieres, amor?
- Malos y malditos
- Olvidado rey Gudú
- De la anorexia a la Bulimia
- La depresión
- Estoy sin blanca

Manuel Rivas
 Fernando Savater
 Ana Maria Matute
 Elena F.L. Ochoa
 Jose Maria Villagrán
 Ricardo Santomá

Gaztelera



Gaztetxoentzat

- Ipuinkaria
- Han urrutian
- Bonba

Patxi Zubizarreta
 Patxi Ezkiaga
 J.M. Almarzegi

- Jones Kankailu
- Makinaz idatzitako ipuinak
- Bakerako jostailuak eta...

Catherine Cookson
 Gianni Rodari
 Saki

Haurrentzat



inportaturiko erropa eta artisautza

Basadi 3 Zumaia


TXOKOA



T
B
E
R
N
A

Artadi Auzoa

86 21 89



AIZPURUA


L
I
B
R
U
D
E
N
D
O
P
A
R
I
A
K

Aita-Mari Auzategia, 17
 Telefonoa: 861569
 20750 ZUMAIA

d^{at}üt

Bigarren **at**ala

Hondarribi Hills-en itzaletik sortuak diren lagun hauek, denbora pasa ahala geroz eta garbiago dute zein motatako musika landu nahi duten. Garbi dute, zeren gaur egun Euskal Herri mailan zein estatu mailan ohorezko postu bat irabazia dute, eta harrotasunik gabe, maila bikaina duen talde kreatibo honek aurrerapauso nabarmena egin du. Horren lekuko 15 abesti berri utzi dizkigute R.A.T.M bezelako taldeen kutsuz beterik.



Jakina da disko bat ateratzea oso zaila dela, baina are zailagoa da bigarren disko bat gauzatzea estatu osoko kritikariak edozein akats aurkitzeko zain daudenean, beti gehiago espero baita horrelako hasiera nabarmena ematen duten taldeetat. AT izenburu bitxi honek espekulazio guztiak ezabatzen ditu. Lehen bost taldekide ziren eta orain hiru soilik. Iraganean baino nortasun nabariagoa dute eta bai baxu zein kitarraren fusioak akats gabetasuna miazkatzen du.

Nola litekeen partaide gutxiagorekin zein partizipazio ezarekin

horrelako itxura aberatsa ematea? Oso erraza. Barne egitura gordinean dago oraindik, estrukturak ez du fisurarik (nahiz eta kitarra edo ahots nagusia falta), fruituak ematen hasi den zuhaitz gazte bat besterik ez da. 96ko azaroan grabaturiko lan honek zeresan ugari emango du hasi berri dugun urte honetan zehar. Iraganaz asko galdetuko diete, zergatik utzi duen kantariak etabar, baina nabaria da **Dut**-en iragana pasatako historia dela. Zuzeneko emanaldietan oso zaila izango zaigu kanta zaharren bat entzutea. Arrazoiak? Nork daki, hobe da ezer ez asmatzea. ■

Hondarribi Hills

Mendi magalean dolar baratza, jauntxoak dantzan lurraz beste eginaz. Luxuzko hilerri txukunak eraikitzen, airearen jabe go pribatuaren herrietan. Nola sal-eros daiteke lurra? Nork egin gaitu jabe!!
Hilik Hondarribi Hills.



**JUSTA
TABERNA**
EGUNEROKO
BAZKARIAK

Erribera kalea 20

ONCE

**JOXE
MANUEL**

Kupoiak tailer, etxe eta dendetara eramaten dira.
Tel: 862347-861001



Motxian hi!



Zein: Olentzero

Zer: Ikazkin erretiratua

-OLENTZERO ALA OLENTZARO?

HORRELAKO TXIKIKERIAK EZ ZAIZKIT AXOLA. BERDIN ZAIT, NOEL DEITZEN DIDAZUEN BITARTEAN BEHINTZAT.

-EZAGUTZEN AL DUZU NOEL?

EZAGUTU? NAHIAGO NUKE BOLA GORRI HORI EZAGUTUKO EZ BANU. EUSKAL ETXEETARA OPARIAK EKARRI IZAN DITUENA BETIDANIK NI IZAN NAIZ, ETA KONPETENTZIA EGITERA DATOZEN KANPOATARRAK EZ DITUT ATSEGIN.

-NOIZTIK ZABIL TZA EGINKIZUN HONETAN?

PUF, AURTEN USTE DUT 1996. ALDIA DELA.

-OPARIAK ASKO ALDATU AL DIRA?

IZUGARRI. EGIN NUEN LEHEN OPARIA OGI ZURI BAT IZAN ZEN, ETA AZKENA HITZ EGITEN DUEN ORDENAGAILU BAT. KONTUAK ATERA.

-GUSTOKO JAKI BAT?

GABON AFARIAN UZTEN DITUZUEN SOBRAK OSO GUSTORA JATEN DITUT.

-TRENA ALA ABIOIA?

EZ BATA ETA EZ BESTEA EZIN DIRA KONPARATU NERE JUSTA ASTOAREKIN.

-MELTXOR, GAXPAR ALA BALTASAR?

HIRURAK. HIRURAK GARBITUKO NITUZKE. GURE KONTURA EDERKI BIZI DIRA BERAIEK ETA BEREN OFIZIOKO GUZTIAK. GORA ERREPUBLIKA!

Nire iritziz

ETORKIZUNA

Lau hitz besterik ez Zumaiaiko etorkizunari buruz.

Badakigu Zumaia ez zaigula hirugarren adineko jendez guztiz beteko, hainbeste ume eta haur baitaude; kalera begirada bat bota orduko kotxe kapotak eta karroak besterik ez dira ikusten.

Beldur naiz haur guzti hauek hemendik urte gutxitara motorrean ibiltzen hasiko balira era batera, zer gertatuko litzatekeen!

Gizarte ezezagun bat ikusten dut, zeren gure aitona-amonek ere beraien garaian ez zutelako berehala jakingo gaur egun nola bizi garen asmatzen.

Azkenik badakigu eskolan bakarrik ez direla gauzak ikasten, irakatsi diezaiegun baita ere ikastolatik kanpoko ikasgaiak gainditzen.

MOIS



CARLIN
OFIMARKET

ESKOLARAKO MATERIALA.

FOTOKOPIAK **5** PEZETAN

Kale Nagusia 3 Tel./Faxa: 143453



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IRAKI GARMENDIA MENDIZABAL
-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea
20750 ZUMAIA
Tel. 143310

LARRIALDIAK
-24 orduetan
-Zeure etxean
-Telef. 900-282828
Abonatu zbkia: 247790

BIZKOR
FOTOKOPIAK



-Enkuadernaketak
-Plastifikatzeak
-Fax publikoak
-Bulegoko materiala

Basadi 14, behea - Tlf: 143120

Salerosketak

Bigarren eskuko deshumidifikadore bat erosi nuke. Deitu 860569 telefonora.

Baxuaren anplifikadore bat salgai, 100 w-koa. Deitu 861929 telefonora (Eneko)

AGURRAK

Josu Zalla: kantatzia libre dek! TXIXAPA.

Hi Belmon, neskak ez al dik bizarra mozten uzten, eo ze osti? K.D.T.

Non Dago Waly?
KUTXAKo kalendarioan.

JAKINTZA MOTAK eta jantzi itzak botak! Ai KIXKUR!

Iratxe, nuntxupa eta ZORIONAK!!

Iña Kalimotxo Kontxa guria dek, Zorionak.

Aupa Jesulina! Guaindike SORPRESA, SORPRESA jun ber den!

Urte Berri On! Ondo pasau, gutxi gastau ta asko ligau!

Jesulina! Etxinan ba hasarrauko?! Hilabete moskeauta!

Buitraker, ze mouz Strip-pala?

Gero eta gutxio falta zak "egun haundirako":
-Yoni a la mil!
-Yoni a la mili!

Patxi birdai tsu yu, 21 tako.

Salmenta puntuak


JESUSKOA JATETXEA
ERROTA (ERRIBERA)
ERROTA (BASADI)
ERROTA
(J.BELMONTE)
OGI BERRI (AMAIA)
OGI BERRI (BASADI)
ARKUPE OKINDEGIA
AIZPURUA
LIBURUDENDA
OLANO LIBURUDENDA
LOITZ LIBURUDENDA
ALAI JANARIDENDA
NIKOL KAFETEGIA
INPERNUPE
ZALLA ERRETEGIA
FOTO GAR
ARROA BEHEA
NARRONDO TABERNA


Lehiaketa Goxoa



Aurreko hilabeteko irabazlea **Ane Osa Zendoia** izan da, izekoren laguntzarekin txoko hura Odieta inguruan zegoela esan zigulako. **San Markos tarta ederra** jaso zuten biek. Inbidiarik ematen badizue, badakizue zer egin!!

Herriko txokoekin jarraitzen dugu. **Zer ingurutan dago argazkiko kalea?** Asmatzen duzuenon artean **TXAPARTEGI GOZOTEGIAk** emandako **tarta zoragarri** bat zozketatuko dugu. Parte hartzeko nahikoa duzu erantzuna Txapartegin bertan edota gure buzoian uztea **urtarrilaren 24a** baino lehen. Zorte on!





H arpidetzak - 97

1997 urte osoan gure aldizkaria etxean jaso nahi baduzu, otsaila bitartean badaukazu harpidedun egiteko aukera. Horretarako pasa zaitez Forondatik eta zure datuekin batera 1.000 pezeta uztea nahikoa da. Herritik kanpora bidaltzea nahi baduzu (postaz) 1.500 pezeta ordaindu beharko dituzu. Harpidetza berritzeko Kultur Etxetik pasatzeaz gain badago beste aukera bat: Euskadiko Kutzako (Laboraleko) kontu zenbaki honetan sartzea dagokion kopurua: 3035 0037 4 2 0371041244

Harpidetza arrunta: 1.000 pezeta / Kanporakoak (postaz): 1.500 pezeta

Juanjo Larrañaga



HARATEGIA / URDAITEGIA

Orain ganadua IRAETAKO BASERRIAN hazten dugu, artoa, garagarra, baba eta soja emanez primerako kalitatea duen haragia lortzeko

ETA HARAGI HAU...



BASADI AUZATEGIA 4-A
TEL. 862081
ZUMAIA

...GURE ESTABLEZIMENDUAN
SALTZEN DUGU
HONEK GURE HARAGIA
KONFIANTZA OSOKOA
BIHURTZEN DU
GAINERA TXARKUTERIA
GUK GEUK EGITEN DUGU

